

# Kannabisaren eragin ekonomikoaren inguruko zenbait gogoeta

*Josune López Rodríguez*

Zuzenbide Fakultatea, Deustuko Unibertsitatea

josunelopez@hotmail.com

Jasoa: 2013-01-28

Onartua: 2013-07-02

**Laburpena:** Gaur egunean, kannabisa mundu mailako fenomenotzat jo behar dugu. Zinez, munduko herrialde gehienetan lantzen da; askotan, bere hedadurak herrialdeen arteko mugak zeharkatzen ditu; eta, gainera, bera da legez kontrako substantzien artean, munduan gehien kontsumitzen dena. Zalantzarik gabe, kannabisarekin zerikusia duten ekintzek eragin nabarmena dute ekonomian, dela legezko ekonomian, dela legez kontrako ekonomian. Ideia honetatik abiatuta, aurrena, ekintza hauetan jarriko dugu arreta, haietako garrantzitsuenak azpimarratuz. Azalpen honen bitartez, aditzera eman nahi dugu kezkarria dela kannabisak, legez kanpo dagoela heinean, legez kontrako ekonomian duen eragina. Egoera hau gogoan izanda, ondoren, gauzak aldatzeko proposatzen diren irtenbide nagusiak ikusiko ditugu, haien abantailak eta desabantailak zeintzuk izan daitezkeen esanez.

**Hitz-gakoak:** Ekonomia, globalizazioa, merkatu beltza, kannabis.

**Abstract:** Nowadays cannabis is a worldwide phenomenon. It is cultivated in most of the countries in the world; in many cases its distribution crosses frontiers between countries; furthermore, among all the illegal substances cannabis is the most consumed one. There is no doubt about the big economical impact of all the actions related to cannabis, both in legal and illegal economy. Starting with this idea we will try to emphasize the most important facts related to it. By means of this explanation we will try to explain the alarming effect of illegal cannabis in the economy which is against the law. Then, we will explain the most feasible alternatives to those situations, with their advantages and disadvantages.

**Keywords:** Economy, globalization, black market, cannabis.

## 1. SARRERA

Egun, ezin uka daiteke kannabisaren inguruko eztabaida pil-pilean dagoela. Oro har, gai honek hainbat esparru eta interesi eragiten die; horregatik, oso zaila izaten da adostasuna lortzea droga honi buruzko politikak eta tresna juridikoak garatzeko prozesuetan.

Urtetan zehar, hainbat izan dira droga jakin batzuen eremuan erreprezio-jarrera hertsia mantendu izan duten gobernuak, zenbait drogaren legez kontrako laborantza, merkataritza eta kontsumoarekin amaitzeko xedearekin; aitzitik, errealtateak agerian utzi du mekanismo zorrotz hauen porrota eta arrakasta eza. Hain zuzen ere, kannabisari dagokionez, droga hau munduko herrialde gehienetan lantzen da, berebiziko hedadura lortu duelako, globalizazio fenomenoak bultzatuta behinik behin; gainera, mundu mailan gehien kontsumitzen den substantzia da. Hori dela eta, premia handia dago kannabisari buruz indarrean dauden politika eta tresna juridikoen inguruan hausnartzeko.


Testuinguru korapilatsu hau gogoan izanda, artikuluko honek aztertu nahi du kannabisaren fenomenoak ekonomiari nola eragiten dion. Horretarako, lehenengo, kannabisaren fenomenoak aurkeztuko dugu mundu mailako fenomeno gisa; izan ere, garrantzitsua da droga honek munduan zehar duen hedaduraz jabetzea, bere inpaktu ekonomikoa ulertu ahal izateko. Ideia hau azaldu ondoren, kannabisarekin lotuta dauden ekintza nagusiek ekonomian duten inpaktu orokorra nabarmenduko dugu; argi eta garbi, mundu mailako hedadura duen fenomenoak den neurrian, kannabisak legezko ekonomiari zein legez kontrako ekonomiari eragiten die. Amaitzeko, hausnarketa egingo dugu azaldutako egoeraren aurrean azkeneko aldia proposatutako aldaketan inguruan.

Lan honen bitartez, kannabisak ekonomian duen eraginarekiko hurbilketa bat egingo dugu, atak irekiz hurrengo ikerketei.

## **2. KANNABISA: MUNDU MAILAKO FENOMENOA**

Sarreran aitzinatu den bezala, kannabisa mundu mailako fenomenoak da. Zinez, Nazio Batuen Droga eta Delituaren aurkako Bulegoak (hemenetik aurrera, UNODC) 2012. urtean argitaratutako drogei buruzko informarearen arabera, gaur, kannabisa munduko herrialde gehienetan landu eta produzitzen da; bere trafikoa ere nabaria da, nahiz eta kannabisaren nazioarteko trafikoak beste droga batzuen trafikoak duen tamaina ez izan; eta, legez kontrako drogen artean, munduan gehien kontsumitzen dena da [1].

1. irudian ikus daiteke 2008 eta 2010 urte bitartean 15 eta 64 arteko gizakiek kontsumitutako drogen batezbestekoa (ehunekoetan).



**1. irudia.** 2008 eta 2010 urte bitartean 15 eta 64 arteko gizakiek kontsumitutako drogen batezbestekoa (ehunekoetan). Informazioaren iturria: UNODC. *Informe mundial sobre las drogas 2012*. Naciones Unidas, Nueva York, 2012, 10.

Hala bada, jarraian kannabisaren hedadura islatzen duten daturik esan-garatsuenak aipatuko ditugu. Azalpen orokor honek balio izango digu hurrengo atalen funtsa ulertzeko.

- Gaur egunean, kannabisa munduko herrialde gehienetan landu eta produzitzen da. Lehen, Hegoaldeko herrialdeetan lantzen zen bereziki, herrialde industrializatuera bidaltzeko; ordea, globalizazio prozesuaren ondorioz, orain edozein herrialdetan landu eta kontsumitzen da [2].

Hala ere, oso zaila da horren laborantza eta ekoizpenaren hedadura kalkulatzeko. Alde batetik, une honetan kannabisa inguru irekian nahiz barrualdean erraztasunez landu daitekeenez ezinezkoa da ekoizpen gune guztiak identifikatzea eta kontrolpean izatea; eta, bestalde, ez dago oraindik kannabisaren ekoizpen hedadura eta bolumenaren inguruko zehaztapenak batzeko sistema edo metodologia bateratu bat.

Zernahi gisaz, UNODCen estimazio orokorren arabera, 200.000 eta 641.800 hektarea bitartekoa izan zen 2008. urtean inguru irekian landutako kannabisaren ustezko hedadura [3]. 1. taulan ikus daitezke 2008. urtean inguru irekian produzitutako kannabisaren estimazioak, UNODCen datuak aintzat hartuz:

**1. taula.** 2008.urtean inguru irekian produzitutako kannabisaren estimazioak

Guztira	200.000-641.800 hektarea
Kannabis belarra (marihuana)	13.300-66.100 tona metriko
Kannabis erretxina (hachis)	2.200-9.900 tona metriko

— Zalantzarik gabe, kannabisa munduan zehar trafikutzen da. Edonola ere, horren nazioarteko trafikoaren bolumena ez da beste droga bazuen trafikoarena bezain nabarmena.

Kannabis belarrari (marihuanari) dagokionez, bere ekoizpena tokian tokikoa izaten da eskuarki. Aitzitik, kannabis erretxinari (hachisari) begira, nazioarteko trafiko joera garrantzitsua hauteman daiteke, ekoizteko toki geografikoak eskasagoak baitira [4]. Horrela, UNODCen azalpenen arabera, ondokoak izan dira kannabis erretxina ekoizti eta esportatu duten herrialde nagusiak 2002-2010 tartean: Maroko, Afganistan, Pakistan, India eta Libano.


— Esan bezala, kannabisa munduan gehien kontsumitzen den legez kontrako droga da. Hain zuzen, UNODCk egindako ikerketa oinarritzat hartuz, gutxi gorabehera 170 milioi gizakik kontsumitu dute substantzia (gutxienez urtean behin) azken urteotan. Orokorrean, 15 eta 64 urteen arteko gizakiak dira kannabisaren kontsumitzaileak, edozein gizarte mailatakoak [5].

Atal honetan azaldutako datuek argi erakusten dute kannabisaren ekoizpena, banaketa eta kontsumoa ez direla kontu isolatuak, ezpada munduan zehar hedatuta dauden ekintzak direla.

### 3. KANNABISA ETA EKONOMIA

Kannabisa mundu mailako fenomenoaren heinean, ondorio ekonomiko nabarmenak ditu legezko ekonomian eta legez kontrako ekonomian [6] (ikus 2. irudia). Argiro, substantzia honek garrantzizko finantza-fluxua eragiten du; hori bai, legez kontrako ekonomian duen eraginak ezegonkortasun egoera kezkarria eragiten du ekonomia globalean [7].

Hau esanda, atal honen helburua ez da kannabisaren inpaktu ekonomikoa zifretan islatzea, zeregin horrek azterketa ekonomiko sakona eta espezializatua eskatzen duelako; horren ordez, legezko ekonomian nahiz legez kontrako ekonomian eragina izan dezaketen ekintza nagusiak aipatu eta haien inpaktuaz hausnartzea.



**2. irudia.** Kannabisak ekonomian duen eragina.

### 3.1. Legezko ekonomia

Kannabisarekin, era batera edo bestera harremanetan dauden ekintza askok nolabaiteko eragina dute legezko ekonomian. Hau da, Estatuetakoa kontuetan islatzen dira diru-sarrera edo gastu bezala; are gehiago, zenbait ekintzaren garapena diru publikoarekin mantentzen da.

Sarri askotan, kannabisaren eragin ekonomikoaz mintzatzean, legez kontrako ekonomian duen inpaktuari erreparatzen diogu eta ahaztu egiten dugu legezko ekonomia ere ukitzen duela. Beraz, ondoren, horietako ekin-tzarik nabarmenenak aipatzeari ekingo diogu, ikuspuntu ekonomikotik ga-rantzia baitute.

- Kannabisa antzinatik lantzen eta kontsumitzen bada ere, egun, inte-res handia pizten du esparru desberdinetan (zientzian, medikuntzan, zuzenbidean, politikan, gizartean, kulturean...). Hori dela-eta, urtero, droga hau aztergai duten hainbat eta hainbat ikerketa garatzen dira xede desberdinekin. Bistan denez, ikerketa hauek aurrera atera dai-tezen euskarri ekonomikoa behar dute.
- Nahitaezkoak dira substantzia honek osasunean eragin ditzakeen arazoak edo arriskuak saihesteko eta tratatzeko baliabideak; hortaz, urtero gobernuak diru kopuru jakin bat zuzentzen dute gastu hauei aurre egiteko.
- Leku askotan kannabisaren laborantza eta ekoizpena legez kontra-koa izan arren, ekintza horiek garatzeko beharrezkoak diren bali-a-bide eta tresna asko (hala nola, ongarriak, lanparak, negutegiak...) legezko merkatuan lortzen dira. Bada, tresna hauen salerosketak efektu ekonomikoak ditu.
- Zenbait Gobernuak (esaterako, Herbehereetakoak edo Kanadakoak) farmaziako enpresekin adostu dute kannabisaren erauzkinean oina-rritutako pilulen elaborazioa, helburu terapeutikoekin [8]. Argiro,

Gobernuek diru-inbertsio garrantzitsua egin behar dute horrelako ekimenak aurrera eramateko.

- Kannabisetik eratorritako produktuak saltzeko aukera dagoen herrialdeetan (adibidez Herbehereetan), baimena edo lizentzia bat behar da. Baimen hori lortzeko establezimenduek baldintza jakin batzuk betetzeaz gain, diru kopuru bat ere ordaindu behar dute. Gainera, leku hauetan egiten den salerosketak ere eragina du legezko merkatuan. Hala eta guztiz ere, Herbehereetako kasuan, kannabisaren laborantza debekatuta dagoenez, baimendutako establezimenduetan saldutako produktuak, merkatu beltzetik datoz askotan; ondorioz, lege hutsuneak dauden bitartean, establezimendu hauetan gauzatzen diren ekintzek eragina izan dezakete legez kontrako ekonomian ere [9].
- Kannabisa legez kontrako substantziatzat hartzen den bitartean, bere laborantza, trafikoa eta kontsumoa kontrolatzeko nahiz eragozteko hainbat tresna eta mekanismo mota erabiltzen dira, haietako gehienak diru publikoarekin finantzatzen direlarik [10]. Esate baterako, gai honen inguruan zuzenbide arloan, polizia arloan eta espetxe esparruan gauzatzen diren ekintzek sostengu ekonomiko inportantea dute [11].

Labur zurrean esanda, nahiz eta testuinguru askotan kannabisa legez kontrako substantziatzat hartu, horrekin erlazionatuta dauden ekintza askok garrantzizko eragina dute legezko ekonomian.

### 3.2. Legez kontrako ekonomia

Ikusi dugun bezala, kannabisarekin zerikusia duten zenbait ekintza legezko ekonomian islatzen dira. Alabaina, legez kontrako ekintzak ere badaude eta hauen ondorio ekonomikoak zerga-kontrolatik kanpo geratzen direnez, hasiera batean behintzat pentsa daiteke legez kontrako ekonomian dutela eragina [12]. Nolanahi ere, ekintza hauek legez kontra daudenez, oso zaila da haien eragin zehatza kontrolatzea eta zenbatzea.

Jakina denez, kannabisaren legez kontrakotasunak ez du horren eskaera gelditu edo apaldu; kontrara, argi geratu da gaur egunean, droga honen kontsumoa erabat hedatuta dagoela gizartean.

Egoera honen aurrean, kannabisa ekoizten jarraitu da legeari bizkarra emanaz. Arestian aipatutako datuak gogora ekarrita, munduan zehar kannabisa lantzeko erabiltzen den espazioa oso zabala da eta, guztira, milioika lagunek lan egiten dute kannabisaren laborantzan (bai inguru irekian, bai barrualdean). Orduan, ekintza hau legez kontrakoa den heinean, ekonomia murgilduan kokatuta dago eta horrek ematen dituen irabaziak legez kontrako ekonomiari eragiten diote. Adibidez, Marokoko Iparraldean, 800.000 lagun inguruk egiten dute lan kannabisaren laborantzan lan egiten dute

(Lan arloko eta Gizarte Segurantzako nazioarteko gutxieneko printzipioak errespetatu gabe) eta kalkulatzeko da Marokon ekoiztutako kannabisak nazioarteko merkatuan 4.600 milioi euro inguru mugitzen dituela [13].

Behin kannabisa ekoiztuta, banatzeari ekiten zaio, kontsumitzaileengana helarazteko. Kasu batzuetan, kannabisa maila txikian lantzen da eta bere banaketa gizarte-sareen artean egiten da; aldiz, beste batzuetan, leku batetik bestera edota herrialde batetik bestera eramaten da landutako materia, trafiko-ekintza honek berebiziko arriskua duelarik polizia-kontrolak direla eta [14]. Horrela, kannabisaren banaketa eta salmenta legez kontrakoa den tokietan, droga hau merkatu beltzean saltzen da salneurri altuetan eta, inolako kontrolik ez dagoenez, produktuaren kalitatea ez da beti ona izaten [15]. Europan esate baterako, 2010. urtean kannabis belarraren txikizkako salmenta 3 euro eta 25 euro artean egon zen gramo bakoitzeko eta kannabis erretxinaren txikizkako salmenta 2 eta 17 euro artean gramo bakoitzeko [16].

Gauzak horrela, berez, alde handia nabaritzen da ekoizpen faseak duen eragin ekonomikoaren eta banaketa faseak duenaren artean. Hain zuzen, kalkulatzeko da kannabisak eragiten duen balio gehiena banaketa fasean gertatzen dela [17]. Esate baterako, 2003. urtean Marokoko nekazariek kannabis erretxina saltzen zuten, 130 euro ingururen truke kilo bakoitza; ondoren, materia hori Espainiara eramaten zen eta bertan txikizkako salmentan kilo bakoitza 4400 euroan saltzen zen gutxi gorabehera eta handizkako salmentan kilo bakoitza 2725 euroan [18].

Honekin guztiarekin batera, esan beharra dago legez kontrako ekintzek ematen dituzten irabaziek legezko ekonomian ere eragina izan dezaketela, batez ere, diru-zuriketaren bitartez [19]. Areago, legez kontrako ekintza hauen testuinguruan antolatutako krimenak eta ustelkeriak ere indar handia izaten dute.

Duda-mudarik gabe, legez kontrako ekonomiak Estatuaren garapen ekonomikoa, eta gizarte, kultur eta politika-garapena oztokatzen du eta, aldi berean, oinarrizko giza eskubideen kontrako erasoak dakar.

#### **4. EZTABAIDA: KANNABISA INDUSTRIA GISA?**

Aurreko atalean azaldutakoaren arabera, ondorioztatu behar da kannabisak efektu ekonomiko nabarmenak izan badituela. Zehazki, droga honek legez kontrako ekonomian duen inpaktua kezagarria da, ez bakarrik ikuspuntu ekonomikotik, ezpada horrekin zerikusia duten bestelako arazoek (ezkutuko lanek; delinkuentziak; abusuek...) eragiten duten ezegonkortasun egoeragatik ere. Esangura horretan, kannabisarekin harremanetan dauden politikek eraginkortasunik ez duten bitartean, merkatu beltzak edo legez kontrako merkatuak izango du horren gaineko kontrola.

Kannabisaren gaineko errepresio-politiken aurrean, hainbat dira horren merkatuan aldaketak eskatzen dituzten hiritarrak (bai banako modura, bai talde baten barruan), merkatu beltzetik at nolabaiteko kontrola eta segurtasuna aldarrikatuz [20].

Ildo horretatik, atal honetan, lehenengo, adibide moduan aipatuko ditugu azken aldian gai honen inguruan egin diren bi eskaera zehatz; segidan, kannabisaren merkatua kontrolatzeko proposatzen diren hiru modelo edo eredu aurkeztuko ditugu; azkenik, kannabisaren merkatuaren gaineko kontrolak ekonomia globalean izan ditzakeen ondorioak aipatuko ditugu.

#### **4.1. Kannabisaren merkatuaren erregulazioaren aldeko adibideak**

Oraintsu, kannabisaren merkatuan aldaketak eskatzen dituzten gizarte eta politika-mugimendu batzuk ikusten ari gara. Horietako batzuek kannabisaren merkatuaren erregulazioa eskatzen dute, dela merkatu ekonomiko zabal eta askearen alde eginez, dela merkatu hertsia baten aldeko apustua eginez. Alabaina, badira kannabisaren legez kontrako izaera mantentzearen alde agertzen direnak ere.

Hau esanda, adibide modura aipatuko ditugu azkeneko aldian gai honen inguruan egunkarietan ikusi izan ditugun bi kasu.

Batetik, 2012. urtearen erdialdera, Uruguayko gobernuak marihuanaren merkatuaren gainean Estatu mailako kontrola ezartzea helburu zuen Lege Egitasmoa aurkeztu zuen Parlamentuan eztabaidatzeko. Egin-eginean ere, Lege Egitasmoaren helburu nagusia kannabisaren gainean Estatu mailako monopolioa bultzatzea zen, batez ere merkatu beltzaren arriskuei eta nar-kotrafikoari aurre egiteko eta, aldi berean, biztanleriaren segurtasuna bermatzeko.

Zehatz-mehatz, Lege Egitasmoaren arabera, Uruguayko Estatuak bere gain hartuko zuen marihuanaren (eta bere eratorrien) gaineko kontrola eta Estatuak berak arautuko zituen drogarekin loturiko ekintzak (hala nola, horren inportazioa, ekoizpena, eskuratzea, biltegitratzea, komertzioa eta banaketa). Orobat, Lege Egitasmoaren testuan azpimarratzen zen, Estatuak egin beharreko ekintzek kalteak murrizteko politikaren ildoari ekin behar zitzaiola.

Haatik, azkenean, gobernuak atzera egin du eta bertan behera utzi du Lege Egitasmoa [21]. Iritzi-aldaketa honen arrazoiei dagokienez, hainbat bertsio badaude ere, ez da artikulu honen helburua haietan sartzea.

Bestalde, 2012. urtearen hasieran, Rasquerako udalerrak (Tarragonan) kannabisarekin zerikusia duen proposamena jarri zuen mahaiaren gainean, krisialdi ekonomikoari aurre egiteko neurri gisa: hain zuzen ere, kannabisaren laborantzaren sustapena maila handian.



Halatan, udalerrri batek eta Elkarte pribatu batek (Asociación Barcelonesa Cannábica de Autoconsumo delakoa, ABCA), elkarrekin negoziatu ondoren, kannabisaren laborantza bultzatzeko egitasmoa aurkeztu zuten udalerrian. Bada, egitasmoan udalerriko jabetzapean dauden lur eremu batzuk alokatzea aurreikusten da; eremu horietan kannabisa landu eta ondoren, ABCA Elkarteko kideen artean banatuko da. Euren esanetan, mekanismo ona izan liteke udalerrriaren zorra ordaintzeko, enplegua sustatzeko eta diru-sarrerak handitzeko [22]. Gainera, adierazitakoaren arabera, eredu honen bitartez kannabisaren laborantzaren zikloa eta kontsumoa kontrolatu eta horrela, substantziaren kalitatea bermatu daiteke.

Une honetan, kasua auzitegietan dago; horregatik, itxaron egin beharko da horren garapena ikusteko.

#### **4.2. Merkatu beltzari aurre egiteko ereduak**

Esan bezala, merkatu beltzari aurre egiteko, kannabisaren ekoizpena, banaketa eta eskuraketaren gainean kontrol bat ezartzea da bai gizartean bai politika mailan eztabaidatu izan den gai iskanbilatsua [23].

Baina-nork izan beharko luke kannabisaren merkatuaren gaineko kontrola?

Alde batetik, Uruguayko kasuan ikusitakoaren arabera, Estatuaren monopolioa izan daiteke kannabisaren ekoizpena, banaketa eta salerosketa. Neurri honen bitartez, Estatuak izango luke droga honen gaineko kontrol guztia. Hala bada, merkatu beltzari aurre egiteko irtenbidea izan daitekeen arren, arrisku nabariak ere eragin ditzake proposamen honek: hain zuzen, Estatuaren jarrera eraginkorra ez bada eta ustelkeriak horren jokabidean eragina baldin badu, kannabisaren merkatua ez da iraunkorra izango.

Bestalde, kannabisaren inguruan alkohola edo tabakoaren pareko merkatu irekia sortzeko aukera ere eztabaidatu izan da. Zehazki, kannabisarekin harremanetan dauden ekintzak erregulatuak egongo lirateke eta, hasiera batean behintzat, kontrolatuak. Halere, merkatu honen eragile nagusia irabaziak lortzeko asmoa denez, horrek arrisku edo desabantailak ekarri ditzake bai kannabisaren laborantzan lan egiten duten kideentzat, bai kannabisaren kontsumitzaileentzat. Arean ere, seguruenik, merkatu honen gaineko boterea merkataritza-enpresa handien eskuetan egongo litzateke eta, egoera horretan, gerta daiteke enpresek euren botereaz baliatzea nekazariei prezio baxuak ordaintzeko. Areago, produktuaren kalitatea murrizteko arriskua ere egon daiteke, irabaziak lortzeko asmoarekin enpresek produktuak aizuntzeari ekiten badiote (tabakoarekin gertatu izan den bezala) [24].

Irtenbide hauek alde batera utzita, badira merkatuari begira ez dagoen ereduak proposatzen dutenak ere (esate baterako, Espainia mailan, «Clubes

Sociales del Cannabis» delakoak). Oro har, merkatu mugatu eta itxiaren alde egiten dute [25]. Itxura denez, ohiko merkatuan, merkatu arruntean ez bezala, merkatu mugatu honen helburua ez da diru-irabaziak lortzea, ezpada kannabisaren inguruan industria iraunkorra bultzatzea. Hots, kannabisa lantzen duten kideen eta kontsumitzaileen artean nolabaiteko harremana ezartzea proposatzen dute; horretarako, produktuaren garapena kontrolatu eta bere zentzuzko erabilera zainduko litzateke. Gauzak horrela, eredu honen bitartez merkatu beltzak eta ohiko merkatuak eragin ditzaketen arriskuak saihestu nahi dira; ordea, horrek arrakasta izan dezan erregulazio zehatza eta eraginkorra behar da, bestela, ohiko merkatuaren presioak suntsitu egingo lukeelako merkatu mugatua.

### 4.3. **Kannabisaren merkatuaren erregulazioa eta ekonomia**

Orokorrean, kannabis-merkatuaren gainean kontrol bat ezartzeak eragin garrantzitsua izan dezake ekonomian. Halaber, ez da ahaztu behar merkatuaren erregulazioak beste esparru batzuetan efektuak (positiboak zein negatiboak) ere izan ditzakeela.

Hartara, ikuspuntu ekonomikotik, hurrengoak dira, besteak beste, kannabisaren legezko merkatuak ekarri ditzakeen ondorioak nabarmenak [26]:

- Kannabisaren merkatu beltzak behera egingo luke eta legezko ekonomia sustatuko litzateke. Hala eta guztiz ere, ziurrenik, kannabisaren legez kontrako merkatuak bere horretan jarraituko luke.
- Zenbait herrialdetako baliabide naturalak balioztatuko lirateke.
- Nekazaritzan, merkataritzan eta zerbitzu sektorean lanpostu egonkorak sortuko lirateke, eta Gizarte Segurantzarekiko eginbeharrak beteko lirateke.
- Erregulatutako ekintzak zergen kontrolpean egongo lirateke.
- Zuzenbide arloan, polizia arloan eta espetxe esparruan kannabisarekin zerikusia duten ekintzei zuzendutako diru kopurua murriztuko litzateke.

## 5. **ONDORIOAK**

Aurreko ataletan azaldutako ideiak eta gogoetak aintzat hartuz, ideiarik edo ondorioak garrantzitsuenak azpimarratzeari ekingo diogu lana amaitutzat emateko.

**Lehenengoa.** Kannabisa munduan zehar hedatuta dagoen droga da; hori dela-eta, horren inguruko politikak garatzerako orduan egitate hau kontuan hartu behar da.

**Bigarrena.** Kannabisaren hedadura ikusita, nahitaezkoa da gaur egungo ekonomian duen inpaktua aztertzea eta baloratzea; eta, batez ere, legez kontrako ekonomia duen eragina argitara eramatea.

**Hirugarrena.** Oro har, kannabisa legez kontrako substantziatzat hartzen denez, berarekin zerikusia duten legez kontrako ekintzek efektu negatiboak dituzte mundu mailako ekonomian. Egoera honek sistema ekonomikoa eze-gonkortu egiten du eta, zeharbidez, beste esparru batzuk ere ukitzen ditu.

**Laugarrena.** Ikuspuntu ekonomikotik, kannabisari buruzko politiken norabidea berrikusteko beharra dago, nolabaiteko kontrola ezarri ahal izateko.

**Bosgarrena.** Oraingo egoerari irtenbide eraginkorra eta koherentea eman ahal izateko, giza eskubideekiko begirunea hartu behar da oinarritzat.

## **BIBLIOGRAFIA**

- [1] United Nations Office on Drugs and Crime (UNODC). 2012. *World Drug Report 2012*. United Nations, New York, 43-51.
- [2] DECORTE, T. 2012. «The globalization of (domestic) cannabis cultivation». ZZAA. *Cannabisa. Erabilerak, Segurtasun Juridikoa eta Politikak*. Ararteko, Gasteiz, 103.
- [3] United Nations Office on Drugs and Crime (UNODC). 2009. *World Drug Report 2009*. United Nations, New York, 89.
- [4] <http://www.interpol.int/Crime-areas/Drugs/Cannabis>.
- [5] UNODC. *Economic and social consequences of drug abuse and illicit trafficking*. Editatu gabeko informea, **6. zk**, 10.
- [6] ARANA, X. 2005. *Documento técnico para un debate social sobre el uso normalizado del cannabis*. Eusko Jaurларitza-Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 33-34.
- [7] VEGA SERRANO, J. M. 2003. «Drogas y economía: aspectos financieros del tráfico de drogas». *CGPJ. Cuadernos de Derecho Judicial (Drogodependencia y Derecho)*, **8. zk**, 142.
- [8] MUÑOZ SÁNCHEZ, J. eta SOTO NAVARRO, S. 2001. «El uso terapéutico del cannabis y la creación de establecimientos para su adquisición y consumo». *Revista de Derecho Penal y Criminología*, **7. zk**, 53.
- [9] BARRIUSO, M. 2012. «Ni prohibición ni mercantilización: buscando el equilibrio en la regulación legal del cannabis». ZZAA. *Cannabis. Usos, Seguridad Jurídica y Políticas*. Ararteko, Vitoria-Gasteiz, 180.
- [10] GURIDI ALDANONDO, L. 2001. «Aspectos socioeconómicos de las drogas ilegales». *Osasunaz*, **4. zk**, 242-243.
- [11] GAMELLA, J. F. 2012. «California y sus vecinos: construyendo y reconstruyendo el Sistema prohibitivo del cannabis». ZZAA. *Cannabis. Usos, Seguridad Jurídica y Políticas*. Ararteko, Vitoria-Gasteiz, 38.
- [12] IZAGIRRE, A. 1997. «Economía ilegal y de la corrupción». *Ekonomiaz. Revista Vasca de Economía*, **39. zk**, 197-203.

- [13] <http://www.guinguinbali.com/index.php?lang=es&mod=news&cat=1&id=818>.
- [14] LEGGET, T. eta PIETSCHMANN, T. 2008. «Global cannabis cultivation and trafficking». ZZAA. *A cannabis reader: global issues and local experiences*. European Monitoring Centre for Drugs and Drug Addiction, Luxemburgo, 203.
- [15] IZAGUIRRE, A. 1997. «Economía ilegal y de la corrupción». *Ekonomiaz. Revista Vasca de Economía*, **39**, zk, 200.
- [16] European Monitoring Centre for Drugs and Drug Addiction. *The State of the Drugs problem in Europe. 2012. Annual Report 2012*. Luxemburgo, 40-41.
- [17] GURIDI ALDANONDO, L. 2001. «Aspectos socioeconómicos de las drogas ilegales». *Osasunaz*, **4**, zk, 240.
- [18] GAMELLA, J. F. eta JIMÉNEZ RODRIGO, M. L. 2008. «Multinational export-import ventures: Moroccan hashish into Europe through Spain». ZZAA. *A cannabis reader: global issues and local experiences*. European Monitoring Centre for Drugs and Drug Addiction, Luxemburgo, 268.
- [19] VEGA SERRANO, J. M. 2003. «Drogas y economía: aspectos financieros del tráfico de drogas». *CGPJ. Cuadernos de Derecho Judicial (Drogodependencia y Derecho)*, **8**, zk, 145.
- [20] LAMARCA ITURBE, I. 2012. «Sarrera». ZZAA. *Cannabis. Usos, Seguridad Jurídica y Políticas*. Ararteko, Vitoria-Gasteiz, 15.
- [21] El País. «Mújica da marcha atrás en su proyecto de legalizar la marihuana en Uruguay», 2012ko abenduaren 19a, [http://sociedad.elpais.com/sociedad/2012/12/19/actualidad/1355878598\\_557491.html](http://sociedad.elpais.com/sociedad/2012/12/19/actualidad/1355878598_557491.html).
- [22] El País. «Un pueblo de Tarragona alquilará terrenos para cultivar cannabis», 2012ko otsailaren 29a, [http://sociedad.elpais.com/sociedad/2012/02/28/actualidad/1330462771\\_446416.html](http://sociedad.elpais.com/sociedad/2012/02/28/actualidad/1330462771_446416.html).
- [23] OOMEN, J. 2006. «Hacia nuevas políticas de intervención en Europa», ARANA, X. eta MARKEZ, I. (koordinatzaileak). *Cannabis: salud, legislación y políticas de intervención*. Dykinson, Madrid, 213-214.
- [24] BARRIUSO, M. 2012. «Ni prohibición ni mercantilización: buscando el equilibrio en la regulación legal del cannabis». ZZAA. *Cannabis. Usos, Seguridad Jurídica y Políticas*. Ararteko, Vitoria-Gasteiz, 179-180.
- [25] BARRIUSO, M. 2012. «Ni prohibición ni mercantilización: buscando el equilibrio en la regulación legal del cannabis». ZZAA. *Cannabis. Usos, Seguridad Jurídica y Políticas*. Ararteko, Vitoria-Gasteiz, 180-181.
- [26] CABALLERO, F. eta BISIQU, Y. 2000. *Droit de la drogue*. Dalloz Bigarren Edizioa, Paris, 164.